

141/2018 FORU AGINDUA, azaroaren 22koa, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak emana, Nafarroako Foruzaingoaren lanaldi, ordutegi eta ordainsarien erregelamendua onesten duen foru dekreturako proiektua prestatzeko prozedura abiatzen duena.

Berriki onetsi da Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legea (2018ko 224. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, azaroaren 20koa), besteak beste Nafarroako Foruzaingoaren lanaldiak eta ordainsariak arautzen dituenak. Haren artikuluetan azaltzen du legea aurrerago garatu behar dela erregelamenduzko arau baten bidez, lehen xedapen iragankorrean ezartzen den arau iragankorrean xedatutakoa deusetan galarazi gabe (*"Foru lege honetan aipatzen diren garapen erregelamenduak onetsi bitartean, egun indarra duten erregelamenduen aplikazioari eutsiko zaio"*). Zehazki, lanaldien, ordutegien eta ordainsarien araubide berria, foru lege honetan jasotako erregulaziotik heldu dena, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen da aplikatzekoa, eta bitartean indarrean jarraituko du Foruzaingoaren lanaldi eta ordainsarien Erregelamendua onesten duen irailaren 28ko 79/2016 Foru Dekretuak.

Erregulatutako gai batzuk, lanaldiei, ordutegiei eta ordainsariei dagokienez, esate baterako lanpostuko osagarria, horren gehieneko kopurua Foru Legeak berak ezartzen baitu, erregelamenduz zehaztu behar da, eta azken kasu honetan ondorioztatuko da lanpostuak baloratzetik eta aztertzetik.

Horrenbestez, beharrezkotzat jotzen da Foruzaingoaren lanaldiei eta ordainsariei buruzko Foru Dekretua prestatzea.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 59. artikulua adierazten du kasuan kasuko gaiaren arabera eskumena duen kontseilariak hasiko dituela erregelamenduzko xedapenak prestatzeko lanak, eta hark izendatuko duela prozeduraren ardura izanen duen organoa.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41.1.e) artikuluan ematen zaizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. Prozedura hastea Nafarroako Foruzaingoaren lanaldi eta ordainsarien erregelamendua onesten duen foru dekretuaren proiektua prestatzeko.

2. Barne Zuzendaritza Nagusia izendatzea proiektuaren prestaketaren eta prozedura horren organo arduradun.

3. Foru agindu hau igortzea Barne Zuzendaritza Nagusira, Barne Zuzendaritza Nagusiko Araubide Juridikoaren Zerbitzura, eta Nafarroako Foruzaingoko buruari, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 22an.

LEHENDAKARITZAKO,
FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO KONTSEILARIA

M^a José Beaumont Aristu